

---

---

ONOMASTICON VASCONIAE

---

---

25

KRISTINA PAVO NUÑEZ

ANTZUOLAKO  
TOPONIMIA



---

---

EUSKALTZAINDIA

---

---

2005

---

---

ONOMASTICON VASCONIAE

---

---

25

---

---



ANTZUOLAKO UDALA



gizarte ekintxa



Gipuzkoako Foru Aldundia

**GOIZPER KOOP. ELK.**

**ELAY TALDEA**

**MATZ-ERREKA KOOP. ELK.**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizuntza Politikarako Saiburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística

Liburu-sortaren zuzendaria / Director de la colección ONOMASTICON VASCONIAE: Andres Iñigo

Aholkularitza / Consejo asesor: Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea /  
Comisión de Onomástica de la Real Academia de  
la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

*Burua / Presidente:* **Andres Iñigo**  
*Idazkaria / Secretario:* **Mikel Gorrotxategi**  
*Kideak / Vocales:* **Patxi Galé**  
**Henrike Knörr**  
**José Luis Lizundia**  
**Elena Martínez de Madina**  
**Félix Mugurutza**  
**Txomin Peillen**  
**Patxi Salaberri**  
**Amaia Usabiaga**

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBAO  
Tel. 94 - 415 81 55  
Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)  
Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.net>

Orrazketa-zuzenketak: Ricardo Badiola Uriarte

ISBN: 84-95438-22-4  
Legezko Gordailua / Depósito Legal: NA - 2.492/2005

Fotokonposizioa / Fotocomposición: ONA Industria Gráfica  
Pol. Agustinos, calle F - 31013 Pamplona / Iruñea

Inprimaketa / Impresión: GRAPHYCEMS / Gráficas CEMS. S.L.  
San Miguel Industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

Eraketa / Diseño: Enric Mir i Malé

*Iñakiri eta gurasoei*



## AURKIBIDEA

HITZAURREA, Jose Angel Zabalo .....	11
SARRERA .....	13
I. AZTERTUTAKO EREMUA .....	15
II. HELBURUA ETA EGINDAKO LANA .....	19
III. METODOLOGIA.....	23
IV. TOPONIMOEN BILKETA .....	27
4.1. IDATZIZKO ITURRIAK.....	30
4.1.1. Iturri bibliografikoak .....	30
4.1.2. Iturri kartografikoak .....	31
4.1.3. Artxiboetako iturriak .....	31
4.1.3.1. Bergarako Udal Agiritegia (BUA) .....	32
4.1.3.2. Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa (GPAH) .....	35
4.1.3.3. Bergarako Jabetza Erregistroa (erreg.) .....	37
4.1.3.4. Antzuolako Udal Agiritegia (AUA).....	37
4.2. AHOZKO BILKETA.....	38
V. ARAUTZEA .....	41
VI. LANAREN AURKEZPENA.....	51
VII. BIBLIOGRAFIA.....	55
VIII. ANTZUOLAKO TOPONIMIA .....	61
A .....	63
B .....	179

<i>C</i> .....	227
<i>D</i> .....	229
<i>E</i> .....	235
<i>F</i> .....	287
<i>G</i> .....	291
<i>H</i> .....	327
<i>I</i> .....	331
<i>J</i> .....	409
<i>K</i> .....	415
<i>L</i> .....	449
<i>M</i> .....	499
<i>N</i> .....	533
<i>O</i> .....	537
<i>P</i> .....	567
<i>S</i> .....	581
<i>T</i> .....	621
<i>U</i> .....	643
<i>Z</i> .....	681
<b>IX. HIZTEGITXOA</b> .....	707
<b>X. TOPONIMOEN ZERRENDA ALFABETIKOKI</b> .....	721

## HITZAURREA

*Antzuola herria Ikerketa Beka* bide luzea egiten ari da, izan ere bosgarren bekaren emaitzak kaleratzera goaz orain. Herriko kultur ondarea berreskuratzea eta zabaltzea helburu nagusitzat duen ikerketa bekak Antzuolako euskara, Zesario Gabarain, larru ontzea eta antzinako usadio eta ohiturak izan ditu honen aurretik aztergai. Eta ez da horretan geratu, jendeak emaitzak eskuragarri izan ditzan liburuan ere kaleratu direlako.

Oraingoan, berriz, herriko toponimia aztertzea izan da Kristina Pavoren eginbearra, sakon eta gogoz egin duena, gainera. Urtebete pasatxo ibili da jo eta ke lan hau burutzen. Bidelagun onak ere izan ditu, Euskaltzaindiaren aholkularitza orokorra eta bereziki Iratxe Lasa. Aldez aurretik, bada, eskerrik beroenak batari eta besteari.

Idatzizko nahiz ahozko informazio iturriak erabiliz, 1.700 toki izen aurkitu, bildu, sailkatu, aztertu, kokatu eta finkatzeko proposamenak ere egin ditu Kristinak.

Baina ez dugu horretan laga nahi lan eder hau, egindako lana edota toponimia guztia fosilizatu edota bazter batean gera ez dadin, mekanismo ezberdinak martxan jarri beharko ditugu gutxienez orain ezagutu eta erabiltzen duguna ez galtzeko eta era berean toki izen berriak ere, zergatik ez, ikasten joateko.

Eskerrak ematea besterik ez zuzenean edota zeharka lan honetan parte hartu duzuen guztioi, eta nola ez Kristina Pavori, bere lan bikainak gure herria hobeto ezagutzeko aukera eman digulako.

*Jose Angel Zabalo,*  
Antzuolako alkatea

## SARRERA

Euskal Herrian izenak ditugu euskararen lekukorik zaharrenak. Hauen artean, esan beharrik ez dago, toponimoek (lekuak izendatzeko erabiltzen den terminoa), gure hizkuntzari buruzko informazio eta datu ugari eskaini diezaguketela. Herrien eraldatze gerografikoak eta beste hainbat arrazoik leku-izenen galera, aldaketa edota ahaztea ekarri dute, mendeetan erabili izan diren izen asko galduta edo galtzeko zorian daudelarik. Hau guztia dela eta, batez ere 90eko hamarkadatik aurrera toponimia lanak ugarituz joan dira. Honek ez du esan nahi lehenago ezer egiten ez zenik, baina askotan argitaratu gabeko lan ugari txokoren batean utzi dira, lanak errepikatu egin dira, etabar... Horregatik, berandu baino lehen, leku izenak biltzea, aztertzea eta arautzea egin beharreko lana da, Antzuolaren kasuan ere, herriaren leku-izenak behin betiko gal ez daitezen.

Antzuolako Udalak, 2003an Antzuola herria Ikerketa Bekaren bitartez, Antzuolako toponimia jaso eta finkatzeko beka atera zuen. 2003ko abenduan Antzuolako izenak batu, aztertu eta arautzeko lanari ekin nion. Lan hau egiteko, idatzizko dokumentazioaren azterketa beharrezkoa izan dut eta baita herriko nagusien testigantza ere.



Lana burutzeko urtebeteko epea izan dut. Epe horretan lan egindako orduak ez dira gutxi izan, baina, hala ere, jakin badakigu, honelako lanek ez daukatela amaierarik eta mugaketa hori kontuan izanda, etekin handien eman ziezadaketen iturriak aukeratu behar izan ditut. Izan ere, lan hau ez dago bukatua, bai dokumentazio historikoari dagokionez, bai ahozkoan oraindik ere badago zer bildu, zer aztertu eta zer "asko". Epe horretan, ahalik eta lan txukunena egiten saiatu naiz.

1993ko *Irinmodo* aldizkarian gure herriko historialaria den Iñigo Ramirez de Okarizek zera idatzi zuen Antzuolako toponimiari buruz:

"Oso toponimia aberatsa dugu: batzuetan beste 1000ra iristen dena. Baina zoritxarrez, laurdena bakarrik posible zaigu identifikatzea "in situ"; beste guztia "fossil" a da, hau da, ezin da kokatu, identifikatu. Beraz, euskal hitzun guztiok dauzkagunak berreskuratzeko ahaleginak egin beharko genituzke".

Gure toponimia lanean 1700 leku-izen inguru batu ditugu. “Gure” diot, hitz horrek duen esanahiaz jabetuta, izan ere, batez ere Iñigok egindako aurrelanek (Antzuolako mapa, baserri eta errotei buruzko lana...) izugarri erraztu baitidate lana eta ondorengo bilketarako ezinbestekoak izan direlako; beraz, hau ez da bakarrik nire lana, baizik eta aspaldi batzuek hasitako lanaren ondorioa.

Hortaz, aurrera jarraitu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet lan honetan lagundu didaten guztiei, pasiboki nahiz aktiboki. Iñigo Ramirez de Okarizi, bere ikerlanek, lehen esan bezala, izugarri erraztu didatelako lana, eta laguntzeko prest izan delako; artxiboetako langileei, emandako erraztasun eta laguntzarengatik; Antzuolako euskara teknikaria den Lierni Legorbururi, eta lanaren jarraipena egin duen Euskaltzaindiko ordezkari den Iratxe Lasari, izan dudana laguntza oparoarengatik. Aipatu ez ditudan guztiei ere, eskerrik asko.



I  
AZTERTUTAKO  
EREMUA

Antzuola Gipuzkoako hego-mendebaldean, Debagoiengan kokatuta dago. Herrigunea osoa, mendiz inguratuta dago eta ibar estu batean zokoratzen da. Beronen azalera 27,9 km<sup>2</sup> da, eta itsasoaren mailatik 231 metrora dago. Mugakide dituen herriak iparraldetik Azkoitia eta Bergara, hegoaldeetik Oñati eta Legazpi, ekialdeetik Urretxu eta Zumarraga eta mendebaldetik Bergara dira.

Herrigunea, azken urteotan jasan duen eraldaketa dela eta, nahikotxo aldatu dela esan dezakegu; bizkaitar lagun batek esaten zidan bezala, kale bakarreko herria izaterik bat baino gehiagokoa izatera pasa delarik eta hainbat auzo edo kale berri ditugu herrian: Sagasti, Mañarieta, Sanjosepe.

Herrigunearen bueltan sei baserri auzo daude, *Galartza, Uzarraga, Lizarraga, Irimeogigoena, Irimeogibarrena* eta *Basalde*, hauetako bakoitza baseliza baten menpean dagoelarik. Baserri-auzo hauek, kokapenari dagokionez, bi multzotan bana ditza-kegu; *Galartza, Uzarraga, Lizarraga* eta *Irimeogigoena* iparraldean eta *Irimeogibarrena* hegoaldean.

Lehen aipatu dugun herrigunearen eraldaketa dela eta, bertako biztanle kopuruak gora egin du 2004an; honen ondorioz, azken urteotako beheranzko joera aldatu eta aspaldi galdutako 2000 biztanleren kopurura heldu da.

Euskararen ezagutzari buruz, Antzuola herri euskalduna dela esan dezakegu 2001eko datuak kontuan hartuz, euskaldun kopurua %76,75 zelarik, ia euskaldunen %7,75 ahaztu gabe.

Antzuolako hizkera linguistikoki bai Bonaparte bai Zuazoren sailkapenen arabera, mendebaleko eta erdialdeko hizkeren muga-mugan dago. Honek zera esan nahi du, erdialdeko zenbait ezaugarri betetzen ditueta eta beste batzuk ez; eta mendebaleko ezaugarriekin beste horrenbeste gertatzen da. Honek guztiak, dudarik gabe, leku izenetan eragin nabarmena izan du eta arautzerako kontuan izan beharrekoa da, inongo zalantzarik gabe.

Antzuolako historiari dagokionez, Antzuolako sorrera ezin uler daiteke, herri-errietatik pare bat kilometrora dagoen Uzarragarekin lotu gabe. Badirudi bertan dagoen San Juan Bataiatzailearen parrokia tenplarioena zela. Parrokia oso garrantzitsua hau ez bakarrik Antzuola herrirako, Gipuzkoako bederatzi elizate zaharrenetarikoa omen da. Herrigunearen sorrerari dagokionez, Herriko plazaren inguruan, lehen



Olalde izenez ezagutzen zena, Errukizko Amaren Parrokia eta Udaletxea aipa ditzakegu, XVI.mendearen bukaeran eta XVIII. mendean sortuak, hurrenez hurren.

Halaber, aipatu beharrekoa da, Antzuolak betidanik izan duela Bergararekin zerikusia. 1391ko urtarrilaren 20ko dokumentu bat dugu izandako harremanaren lekuko. Bertan azaltzen da, Antzuolako biztanle batzuk Bergarako hiribilduaren jurisdikziopean sartzea erabaki zutela; horrela, Bergararen babes, betebeharrak eta eskubideak bereganatuz. Herritarren aipamena egiterakoan lokatiboa erabiltzen dute: Ruy Martinez de Galarça, Martin Garçia de Inurriarroy, Lope Miguelliz de Ayçaga...; beraz, Antzuolako leku-izenen lehenengo aipamenetakoa dugu.

Baina, 1629ko abenduaren 12a, antzuolarron "independentzia eguna" delakoa izan zen; bost mila zilarrezko dukat ordaindu ondoren garaiko erregea zen Felipe IV.ri, Antzuolak Bergararekiko independentzia lortu baitzuen.

Eta gaur egungo gizaldian murgilduz, ezin dugu aipatu barik laga guran industrializazioak eta honen ondorioz emigrazioak izan duen eragina 60 eta 70. hamarkadetan. Gaur egun herri industrializatua da. Eta lehen esan bezala, azkenengo urteotan herrian egin den etxebizitza kopuruaren ondorioz Antzuola hazten doa politikopoliki, herrikoa ez den jende ugari etorri delarik bertora bizi izatera.





II  
HELBURUA  
ETA EGINDAKO LANA

Lan honen helburua **Antzuolako leku-izenak biltzea, aztertzea eta forma idatzia finkatzea, arautzea**, alegia, izan da.



Bilketari dagokionez, bi eratakoa izan da. Alde batetik, **bilketa historikoa**, idatzizko dokumentatuetatik eskuratu dena; artxiboetan eta hainbat agiritan gorde diren agirien miaketen bidez, historian zehar Antzuolan erabili izan diren toponimoak jasotzea izan da egindako lana. Bestetik, **gaurko edo ahozko bilketa** egin dugu, bertoko lekukoen bitartez jasotakoa. Kanpo lana izan da gehienbat, batekin eta bestearekin hitz eginez lortu den informazioa. Hala, agirietan azaltzen ez diren hainbat toponimo jasotzeaz gain, haien inguruko informazioa bildu dugu: kokagunea, adierakideak, egungo ebakera...

Behin bilketa hau eginda, izen hauek aztertu ditugu; orain arte erabili izan diren irizpideak, toponimoaren jatorria, bilakaera historikoa, egungo ebakera eta abar kontuan izanda, behin-behineko **izen arautua** proposatu dugu.

Izenak bildu, aztertu eta arautu ondoren, **mapa** batean kokagune zehatza ezagutzen zaien toponimoak txertatuko dira.

Lanaren helburua hori izan bada ere, sarreran aipatutakoaren ildotik badira honelako lanek bete ahal dituzten hainbat eta hainbat helburu:

1. Herritarren ondare historikoa gorde eta aberastea: honen barruan toponimia altxorra gorde eta aberastu, bertoko kulturari cutsiz belaunaldiz balaunaldi.
2. Herria hobeto ezagutzeko aukera eman, herritarrei orohar, eta bereziki irakasle eta gazteenei ere... horretarako material hau erabil daitekeelarik.
3. Galtzeko arriskuan dauden leku-izenak gordetzea.
4. Herrian egiten den edozein jarduera osatu, apaindu eta aurkezteko material egokia izatea (bandoak, kultur ekintzak, administrazioa, paisaia linguitikoa...)
5. Euskal Herri mailan egiten ari diren toponimiari buruzko lanei Antzuolakoa gehitzea.



III  
METODOLOGIA

Laburbilduz, azterlanerako jardunbidea honakoa izan da:

Lehenengo lana datuak edo toponimoak biltzea izan da. Batetik, orain arte erabili diren toponimoak bildu, artxiboa eta bibliografia arakatuz eta bestetik egun erabiltzen den edo bizirik dirauen toponimia bildu, bertako informatzaile zaharrak elkarrizketatuz.

Horretaz gain, jasotako toponimoen formak arautzen saiatu gara, hau da, aurrera begira erabili beharreko forma idatzia finkatzen.

Azkenik, toponimo arautu horiek, kokapena ezagutzen den kasuetan, behinik behin, mapan kokatzeari ekin diogu.

Hau guztia burutu ahal izateko, lehenengo eta behin ezinbesteko lana izan da toponimia bilketak egiteko dagoeneko nahiko zehaztuta dauden oinarri metodologikoak ezagutzea:

Horretarako, adituek esaten dutena ezagutzea izan da lehendabiziko lanetako bat, hainbat ikerlari eta hizkuntzalarik diotena aztertuz. Hona hemen aztergai izan diren lanik garrantzitsuenak:

*Toponimia eta kartografia: oinarrizko eskuliburua*, Nerea Mujika, 2002.

*Onomasticon Vasconiae: consideraciones metodológicas*, R. Cierbide, 1985.

*Toponimia txikia arautzeko irizpideak*, P. Salaberri eta M. Gorrotxategi, 2000.

*Onomastica jardunaldien agiriak, Toponimia*. Vitoria/Gasteiz, 1986ko apirila eta honen barruan:

“Introducción a la toponimia guipuzcoana. Gipuzkoar toponomastikarako sarrera”, Juan San Martín.

“Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra”, Jose María Jimeno Jurío.

“Recogida, clasificación, normalización y oficialización de un corpus topónimo: consideraciones críticas sobre su problemática según nuestra experiencia en Catalunya”, Enric Moreu-Rey.

...

Hauekin batera Gipuzkoan nahiz Bizkaian egin diren lan toponimikoak ere aztertu ditugu, gehienak Onomasticon bilduman jasota daudenak, hain zuzen ere:

- Hondarribiko toponimia*, J. J. Furundarena, 2002.  
*Ermua-Eitzaga*, Fernando Aranberri, 2001.  
*Andoaingo toponimia*, Amaia Usabiaga, 1993.  
*Pasaiaiko toponimia*, Angel Maria Elozegi, 1991.  
*Urretxu eta Zumarragako toponimia*, Jose Luis Ugarte, 1998.  
*Arrasateko toponimia*, Jose Luis Ormaetxea Lasaga, 1996.  
*Eibarko hiri-toponimia*, Eibarko Udala: Ego Ibarra batzordea, 1995.  
*Legazpiko toponimia*, Jose Luis Ugarte, Legazpiko Udala, 2003.

...

---

---

---

---

---

---

---

---

IV  
TOPONIMOEN  
BILKETA

Behin oinarri metodologikoak argituta, toponimoen bilketari ekin diogu, jasotako informazioa Euskaltzaindiak bideratutako datu-basean sartuz. Hona hemen lanerako erabili dugun *Acces*-eko datu-basearen pantailerako bat:

Microsoft Access - [Lekuen fitxak - Formulario]

Archivo Edición Ver Insertar Formato Registros Herramientas Ventana ? Burriak

Euskaratua, prestatua

### EUSKAL HERRIKO ONOMASTIKA DATUBASEA LEKUEN FITXAK

Enlotu zerbakia

Paño Bala Onomastika Bazardea Euskaratua

Izena: Ifurrigarozpikoa, a Generatzailea: basena

Sinonimoak: Ahozkerak: Ifurrigaroz aspikua Objektua: 301

Enak:
 

Ifurrigaroz aspikua	1625	Isaso	116 or	Capitulu X "De las casas solariegas"
Ifurrigaroz de abajo, casa	1655	Yutube Itapola		Por est escritura Juan de Aranguren
Ynuingaroz Yuro, Caserri	1774	Lib.H-2	28 or	IFurrigaroz de Yutube y Maria Etxep. II
Ynuingaroz Yuro, Casa s	1779	Lib.H-2	101 or	IFurrigaroz Antonio de yuvelta Ybae
Ynuingaroz aspikoa	1807	BLA.E		Yrabas llamado Ynairondo prondiro
Ynuingaroz Yuro, casa II	1843	Lib.H-2	145 or	Entre la Sta D <sup>a</sup> Escolastica de Sak
Ynuingaroz de abajo, Ca	1943	Lib.H-2	150 or	Idn. Pedro Antonio y dn. Jose Bardi
Ifurrigaroz de abajo	1945-1	Madoz	110 or	cas. del barrio de Basalde, en la FI
Ynuingaroz-aspikoa	1956	Lib.H-2	110 or	Arseimo e Ynuingaroz vendio por
Ifurrigaroz de abajo	1957	Nom.	110 or	Casa de labor, 25
Ynuingaroz abajo, hayedo	1980	Lib.H-2	35 or	Uuen Ynuingaroz despoletada de auger

Objektua: 301 Kartografiatzailea: A2, Basalde  
 UTM: X: [ ] Y: [ ]  
 Z: [ ]  
 Kokatzea: [ ]

Oharak: Arizuelak buruz esagutzen dugun lehen datuak agria XV. mendearen hasieratik da, 1307koa hain zuzen, orduan Beltran Ibañez de Gebara, Oñateko Kontze, onen zen. Arizuelako eta baita inguruko herrien kuden jabea. Uzenagako parokistaren hamametak ere berek kobratzen ez zuten, berriak parokistak ere berek zuten eta. Testuinguru honetan, 1307ko dokumentuan salerosketa baten ingurukoak azalzen direla, non Ynuingaroz, Galdak eta Ynuingaroz "koka" saldu zituen, dokumentuaren hauen gain, arizuelak balizuen izenak ere agertzen dira, lokalak bilatze, baserren izenak agertzen direlarik.  
 " (...) Sepan quatos esta carta vieren como yo, Martin Sánchez de Sant Llorenço, abel de San Miguel de Orreot, con otorgamiento de don

Mapa  Kokatzea  Arizuelak  Data: [ ]  Normatua  Mapa

Finantzak iten Accessetik iten

Registro: 14 | 624 | de 1786

Vista Formulario

Inicio SAPPERRARIC Arizuelak de 1307ko dokumentuak

Lanerako erabili dugun *Accese*ko datu-baseko "Lekuak fitxak" izeneko pantaila dugu berau, eta hau izan da datuak biltzeko erabilitako pantaila nagusia. Bere izenak dioen bezala, leku bakoitzaren fitxa da. Bertan leku bakoitzaren datuak sartu ditugu. Hauek dira pantaila honetan azaltzen diren atal garantzitsuenak:

**Izena:** izena arautzeko proposamena.

**Sinonimoak:** leku bera izendatzeko moduak.

**Ahoskera:** izen horren ahozko erabilera (lekukoak).

**Generikoa:** leku hori zer den.

**Objektua:** zer den modu orokorragoan, eta kodea.

**Kartografia:** Antzuola 4 zatitan banatuta, leku hori non kokatzen den (A1, A2, A3 edota A4), eta zein auzotan kokatzen den ere bai.

**Erak:** Jasotako aldaerak. Aldaera bakoitza zein urtetakoa den, iturria (laburdura), orrialdea (idatziz) edo pista (ahoz) zenbakia eta testuingurua, leku izen hori jaso den testuingurua.

**Oharrak:** Leku horri buruzko ohar historikoak, azalpenak...

Bilketa lan hau egiteko bi iturri garrantzitsu izan behar ditugu kontuan: batetik idatzizko dokumentuen azterketa eta bestetik, ahozko informazioaren azterketa.

## 4.1. IDATZIZKO ITURRIAK

### 4.1.1. Iturri bibliografikoak

Iturri idatziei dagokienez, lehenengo lana han hemenka argitaratuta dagoen Antzuolari buruzko bilbiografia batu, aztertu eta jasotzea izan da. Hauek dira, iturri bilbiografiko moduan ezagutzen ditugunak:

(Oh. Iturri bezala agertzen dira, bertan informazio orokorraz gain, Antzuolari buruzko leku-izen ugari agertzen zaizkigulako eta hauek datu-basean sartu ditugulako iturri gisa):

**Isasti** Martínez de Isasti, L., *Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, (1625ean idatzia, 1850ean argitaratua).

**Dicc. Esp.** Real Academia de la Historia, *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, 1802, La Gran Enciclopedia Vasca-k egindako fakzimila, 1968.

**Eleizalde** Eleizalde, L. de, *Lista alfabética de voces toponomásticas vascas*, *RIEV*XIII (1922), *RIEV* XIV (1925), *RIEV* XVIII (1927), *RIEV* XIX (1928), *RIEV* XX (1929), *RIEV* XXI (1930), *RIEV* XXII (1931), *RIEV* XXIII (1932), *RIEV* XXIV (1933), *RIEV* XXV (1934), *RIEV* XXVI (1936), *BAP* (1963), *BAP* (1964).

**BAP1** Antxon Aguirre Sorondo, *Lo culto de dulia, protodulia, hiperdulia y latria en Gipuzkoa* (1ª parte), Boletín de la *RSBAP* LIX, 2003.

**BODG** Boletín Oficial de Guipúzcoa, Nº 69, 1923.

**Madoz** Madoz, Pascual, *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España*, 1845-1850.

**Dicc. Gui.** Gorosabel, P., *Diccionario Histórico Geográfico Descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa...*, 1862 (1972an argitaratuta).

**Erm Gip.** Antxon Aguirre Sorondo, Koldo Lizarralde Elberdin, *Ermitas de Gipuzkoa*, 1993.

**Ermitas** Luis Pedro Santiago, *Las ermitas de Guipúzcoa*, 1975.



ETM Mujika, Luis Maria, *Euskal toponimiazko materialeak*, Gipuzkoako Foru Aldundia, XIV. liburukia, 1989.

Nom. Gipuzkoako Aldundia, 1857-1864, *Nomenclator de la provincia de Guipúzcoa*, argitaragabea.

Antzuolari zuzenean erreferentzia egiten dioten iturri bibliografikoak:

ABE *Antzuolako baserriak eta errota*, Iñigo Ramirez de Okariz Telleria, 1995.

Arg. Bild. *Antzuola 1900-1970, Antzinako argazkien bilduma*, Iñigo Ramirez Telleria, 1995.

Irinm. *Irinmodo* urtekaria, 10 zenbakia (1989-1998).

Antz. Ibilb. *Antzuolatik Antzuolara. Ibilbideak. Itinerarios. Conociendo Antzuola*, Iñigo Ramirez de Okariz Telleria, 1995.

Antz 2001 *Antzuola, Bergara 2001*, Nekar, 2001.

Etxe. Izend. *Antzuolako Jatorrizko Etxe. Izendegia* (paper solteak), Iñigo Ramirez de Okariz Telleria, 1994.

Kale. Izend. 1 *Euskal Aeko Kale-Izendegia*, 1998.

Ibilbideak *Ibilbideak, Uzarraga-Galartza-Lizarraga-Irimoegi Goena-Irimoegi Barrena-Basalde*, Debagoineko Mankomunitatea, Turismo ekintzetarako, 1998.

Kale. Toki. Izend. *Kale aldeko Toki-izendegia*, Iñigo Ramirez de Okariz Telleria, 1994.

Pelot. 100urte *Udal Pelotalekua 1898-1998*, Antzuolako Udala, 1998.

#### 4.1.2. Iturri kartografikoak

Idatzizko iturrien artean, ezin ahanzt ditzakegu iturri kartografikoak, kontuan izanda kokalekuari dagokionez ematen diguten informazioa. Hona hemen iturri moduan erabili ditugunak:

AM I. Ramirez de Okariz, L. del Barrio, L. Zaldúa, *Antzuolako mapa*, Antzuolako Udala, 1994.

Hist. Nat. Art. Toledo taldea, *Historiko, Natur eta Artezko interesdun gisa katalogatutako hondarea*, Planoaren zenbakia: II.11a, Planeamendurako arau subsidiarioen berrikustea eta egokitzea, Antzuola, 2001.

HPS, *Euskal Autonomia Erkidegoko mapak eta zerrendak*, 88-12, 88-19, 88-20, 88-21, 88-27, 88-28, 88-36, 88-53, Hizkuntza Politikarako Saila eta Deiker, 1991.

Mar. map. Hermano Francisco (Marista), *Mapa Municipio de Anzuola*, 1950.

MTNE *Mapa Topográfico Nacional de España*, Instituto Geográfico Nacional, Ministerio de Fomento, Centro Nacional de Información Geográfica, 88-I *Bergara*, 88-II; *Zumarraga*, 88-III; *Arrasate-Mondragon*, 88-IV; *Beasain*, Edición 1999, Vuelo fotogramético del año 1997.

UrZumTop. Jose Luis Ugarte, *Urretxu eta Zumarragako toponimia*, mapa, 1998.

Hauetz gain, Antzuolako mapa mutuak lortu ditugu, bertan toponimoak kokatuz joan gaitzen.

#### 4.1.3. Artxiboetako iturriak

Artxiboetako iturrien azterketa, iturri bibliografikoenarekin batera, lan honen lehenengo atala izan dira. Lan honen lehenengo hilabeteak, beraz, artxiboetako hautsez betetako liburu zaharren artean pasa ditugu.

Artxibo gehiago ere bisitatu daitezke, noski, baina aukeratu behar izan dugu. Bisitatutakoen artean, esan beharra daukagu, Antzuolako Udal Artxiboa aztertutakoen artean, azkena izan dela, eta denbora arazoa dela medio ez dugula nahi adinako azterketetarik egin. Artxibo honez gain, Bergarako Udal Agiritegia, Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa eta Bergarako Jabetza Erregistroa ere bisitatu ditugu.

#### 4.1.3.1. Bergarako Udal Agiritegia (BUA)

Begarako Udal Artxiboari dagokionez, Artxiboak berak duen bilaketa sistemari esker, aurkibide toponimoaren bitartez, Antzuolari buruz duten informazio dezentente aztertu ahal izan dugu, hasi XIV.mendetik eta XIX.mendera artekoa. Dokumentuak, batetik, Azpifondo Historikoari dagozkionak, eta bestetik, Bergarako Artxiboak eskuratu berri duen Yturbe Eulate fondokoak izan dira.

Hona hemen Bergarako Artxiboan aztertutako dokumentu zerrenda eta datu-basean iturri moduan sartutakoa:

#### Azpifondo historikoa

BUA germ.	1657/00/00 - 1861/00/00
BUA, C/109-05	1879/00/00 - 1879/00/00
BUA, C/112-05	1892/00/00 - 1892/00/00
BUA, C/178-22	1579/08/08 - 1579/08/17
BUA, C/188-02	1736/02/13 - 1737/02/13
BUA, C/196-22	1596/05/19 - 1596/11/29
BUA, C/197-13	1776/01/27 - 1776/08/07
BUA, C/202-08	1631/03/24 - 1631/09/21
BUA, C/207-02	1783-1807
BUA, C/222-07	1651/06/27 - 1651/08/09
BUA, C/223-08	1619/06/22 - 1619/08/30
BUA, C/223-09	1727/03/10 - 1728/01/03
BUA, E-07-I, C/230-04	1582/09/19 - 1583/10/10
BUA, E-07-I, C/233-02	1724/04/19 - 1724/04/19
BUA, C/235-09	1617/09/17 - 1617/11/08
BUA, C/242 -03	1594/02/12 - 1594/07/07
BUA, C/248-06	1579/09/23 - 1579/11/14
BUA, C/262-04	1588/01/10 - 1588/03/09
BUA, C/267-06	1635/09/10 - 1635/09/26
BUA, C/282-06?	1572/07/19 - 1572/12/22
BUA, E-07-III, C/285-03	1584/04/27 - 1584/09/25
BUA, C/287-07	1593/01/23 - 1593/01/23
BUA, C/290-05	1617/09/02 - 1617/09/02
BUA, C/293-02	1638/11/15 - 1638/11/15
BUA, C/304-01	1725/05/20 - 1725/00/00
BUA, E-07-I, C/306-01	1734/07/12 - 1734/11/22
BUA, C/307-02	1738/08/10 - 1738/08/13
BUA, C/318-06	1810/05/09 - 1817/06/02
BUA, C/323-04	1599/05/00 - 1599/08/00
BUA, E-07-I, C/329-05	1720/09/23 - 1721/05/10

BUA, C/331-05	1820/09/27 - 1822/12/07
BUA, E-07-I, C/334-01	1590/05/22 - 1590/08/04
BUA, E-07-I, C/336-01	1635/09/09 - 1638/04/05
BUA, C/336-09	1635/03/16 - 1635/03/18
BUA, C/353-06	1595/03/22 - 1598/05/07
BUA, E-07-III, C/354-08	1574/06/04 - 1587/08/17
BUA, C/355-06	1586/04/04 - 1568/12/15
BUA, C/362-03	1600/01/22 - 1600/03/16
BUA, E-07-I, C/367-01	1658/11/06 - 1662/03/15
BUA, C/376-05	1606/03/15 - 1606/03/21
BUA, E-07-III, C/384-03	1606/08/25 - 1606/09/11
BUA, C/388-14	1705/06/12 - 1705/07/23
BUA, C/390-01	1627/02/08 - 1627/07/21
BUA, E-07-II, C/391-03	1593/07/14 - 1593/08/20
BUA, C/391-07	1603/06/25 - 1604/01/14
BUA, C/393-02	1618/07/28 - 1618/07/28
BUA, C/393-07	1631/02/15 - 1631/02/19
BUA, E-07-II, C/396-10	1606/09/09 - 1606/09/09
BUA, E-07-II, C/398-11	1720/02/07 - 1720/05/31
BUA, E-07-III, C/410-01	1726/03/12 - 1737/09/14
BUA, C/416-11	1780/02/29 - 1780/08/30
BUA, C/420-05	1620/05/06 - 1620/07/04
BUA, C/425-01	1539/01/01 - 1539/07/31
BUA, C/425-40	1575/04/15 - 1575/07/14
BUA, C/425-48	1577/01/11 - 1577/02/12
BUA, E-07-II, C/425-62	1580/05/23 - 1580/06/01
BUA, E-07-III, C/426-01	1584/02/18 - 1584/02/29
BUA, C/426-44	1592/11/24 - 1592/11/24
BUA, C/426-51	1593/11/06 - 1594/01/29
BUA, C/426-58	1598/02/15 - 1598/03/07
BUA, C/426-59	1599/02/17 - 1599/02/17
BUA, C/427-15	1623/02/23 - 1623/03/11
BUA, E-07-II, C/427-20	1628/08/21 - 1628/08/21
BUA, C/427-24	1632/07/06 - 1632/07/06
BUA, C/427-27	1636/03/14 - 1636/08/26
BUA, C/427-28	1636/03/31 - 1636/08/19
BUA, C/428-35	1689/00/00 - 1697/00/00
BUA, C/429-06	1722/08/07 - 1799/04/27??
BUA, C/429-22	1737/05/04 - 1737/05/06
BUA, C/429-23	1738/07/07 - 1738/07/14
BUA, E-07-00, C/430-23	1766/07/03 - 1766/07/03
BUA, C/430-57	1801/06/04 - 1801/06/04
BUA, C/468-14	1688/05/13 - 1688/05/13
BUA, E-07-II, C/473-06	1807/02/28 - 1807/05/05
BUA, C/474-02	1772/06/10 - 1772/07/17
BUA, C/474-12	1756/05/31 - 1756/05/31
BUA, C/475-15	1615/03/02 - 1615/03/05
BUA, E-07-II, C/480-04	1595/07/31 - 1596/03/06
BUA, C/482-23	1789/01/31 - 1789/01/31

BUA, C/483-06	1803/01/19 - 1803/02/19
BUA, C/483-19	1803/01/09 - 1803/01/09
BUA, C/483-26	1786/12/09 - 1786/12/09
BUA, C/483-36	1786/10/10 - 1786/10/10
BUA, C/484-28	1803/08/27 - 1803/08/27
BUA, C/484-35	1883/06/11 - 1883/06/11
BUA, C/484-74	1754/12/08 - 1754/12/08
BUA, E-07-II, C/484-57	1803/04/02 - 1803/04/02
BUA, C/484-75	1747/06/19 - 1747/06/19
BUA, C/485-12	1650/05/07 - 1650/05/09
BUA, C/489-04	1777/03/18? - 1777/03/18
BUA, C/489-05	1781/11/05 - 1781/11/05
BUA, C/489-06	1800/05/28 - 1800/05/28
BUA, C/489-11	1809/04/05 - 1809/04/05
BUA, C/490-15	1799/07/29 - 1799/07/29
BUA, C/490-23	1805/12/22 - 1805/12/22
BUA, C/490-29	1804/10/26 - 1804/10/26
BUA, C/490-30	1821/07/02 - 1821/07/07
BUA, C/490-32	1807/08/22 - 1807/08/22
BUA, C/490-35	1803/02/21 - 1803/02/23
BUA, C/491-31	1782/10/30 - 1782/12/04
BUA, C/491-67	1629/05/28 - 1629/05/28
BUA, C/492-20	1815/00/00 - 1815/00/00
BUA, C/493-10	1611/08/17 - 1611/08/17
BUA, C/493-14	1636/03/14 - 1637/08/26
BUA, C/493-31	1632/01/05 - 1632/01/05
BUA, C/493-33	1559/01/05 - 1559/02/04
BUA, C/494-20	1636/10/01 - 1636/11/05
BUA, C/497-04	1807/07/04 - 1807/07/04

#### Yturbe Eulate Fondoa

Yturbe5	1597/05/11 - 1597/05/11
Yturbe18	1558/05/25 - 1558/05/25
Yturbe19	1606/10/18 - 1606/10/18
Yturbe23	1634/07/28 - 1634/07/28
Yturbe46	1634-1634
Yturbe58	1738/04/17 - 1738/04/17
Yturbe71	1540/06/19 - 1540/06/19
Yturbe86	1620/07/03 - 1620/07/03
Yturbe89	1627/11/10 - 1627/11/10
Yturbe92	1628/05/16 - 1628/05/16
Yturbe134	1743/05/05 - 1743/05/05
Yturbe141	1540/00/00 - 1540/00/00
Yturbe149	1833-1833
Yturbe154	1826/03/09 - 1826/03/11
Yturbe156	1809/01/01 - 1812/12/31
Yturbe157	1734/04/27 - 1743/04/27
Yturbe158	1841-1841

Yturbe159	1841-1841
Yturbe160	1844-1844
Yturbe167	1645-1645
Yturbe175	1571/01/01 - 1777/12/31
Yturbe177	1611/01/01 - 1665/12/31
Yturbe203	1603/01/09 - 1603/01/09
Yturbe210	1620/02/02 - 1620/08/24
Yturbe234	1603/01/01 - 1603/12/31
Yturbe238	1851-1851
Yturbe245	1549/03/02 - 1549/03/02
Yturbe249	1608-1608
Yturbe252	1628/02/12 - 1628/02/12
Yturbe254	1609/01/00 - 1609/01/00
Yturbe259	1624/10/29 - 1624/10/29
Yturbe273	1558/05/16 - 1558/05/16
Yturbe274	1578/04/29 - 1578/04/29
Yturbe276	1587-1587
Yturbe417	1474/01/10 - 1474/01/10
Yturbe502	1638/04/24 - 1638/04/28
Yturbe852	1476/09/24 - 1476/09/24

Bertan dokumentu hauez gain, kontsultarako interesgarriak izan diren beste batzuk ere aztertu ahal izan ditugu. Batzuk aipatzekotan, sarreran aipatutako 1391ko urtarrilaren 20ko agiria, non antzuolarrek Bergarako jurisdikziopean sartzea erabakitzen dutela aipatzen den, horrela, bergararren babes, betebehar eta eskubideak bereganatuz. Bertan antzuolarren zerrenda aipatzen da, lokatibo bidez Antzuolako etxeen aipamenak eginez. Hauek ez ditugu iturrietan sartu, baina bai etxe bakoitzari dagokion oharrean. Agiriaren antzinatasuna dela eta, Bergarako Udal Agiritegian ikusteko aukera izan dugun arren, berau irakurtzeko izandako arazoari aurre egiteko, hainbat lagunek egindako transkripzioak erabili izan ditugu:

Crespo Rico, M. A. eta beste, *Colección Documental del Archivo Municipal de Bergara*. Tomo I (1118-1497), Donostia 1995, 32 dok., 48-51 or. eta Gonzalo Martínez Diez, Emiliano González Diez, Félix J. Martínez Llorente, *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas (1370-1397)*, Gipuzkoako Batzarre Nagusiak, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1996.

Horrez gain, Bergararekiko hainbat zalantza argitzeko, argitaratu gabe da goen Bergarako toponimia lana aztertzeko aukera ere izan dugu.

Atal honetan, Bergarako Udal Agiritegiko langileak diren Pili Azkarate eta Arantzazu Oregiri gure eskerrik beroena, gure ezjakintasuna ulertu eta izugarri erraztu digutelako lana.

#### 4.1.3.2. Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa (GPAH)

Oñatin dagoen Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoari dagokionean, bertako arduradunak, berarekin izandako lehen elkarrizketan esan bezala, Antzuolari buruzko dokumentazioa bertan ugaria da, baina denbora muga dugula kontuan izanda, aukeraketa egin beharra izan dugu, lehenetsunak markatuz.

Mujikak 1989an egindako lanean oinarrituz Hipoteka liburuen erreferentzia nuen eta bertatik informazio ugari lortu ahal izan dut, Mujikak bere lan motaren arabera (herri askoren azterketa egin baitzuen...) batez ere Hipoteka liburu horien INDICE liburuak erabili zuten baina nik Antzuolari buruzko CONTADURIA DE HIPOTECAS liburuak orrialdez orrialde aztertu ahal izan dut, orrialde guztietan datu interesgarriak lortuz. Hona hemen aztertutako agiriak:

### 310. Contaduría de hipotecas de Antzuola

#### 001.Libros de registro de Contaduría

**Lib. H-245 (GPAH)**

Unidad Documental

1773/1795

Libro registro de contadurías de Antzuola

**Lib. H-246 (GPAH)**

Unidad Documental

1818/1845

Libro registro de contadurías de Antzuola

### 401. Contaduria de hipotecas del Partido Judicial de Bergara

#### 001. Libros registro de Contaduría

##### 02. Antzuola

**Lib. H-247 (GPAH)**

Unidad Documental

1845/1850

Libro registro de contadurías de Antzuola

**Lib. H-248 (GPAH)**

Unidad Documental

1858/1862

Libro registro de contadurías de Antzuola

#### 002. Libros índice

**Lib. H-623**

Unidad Documental

Sin data crónica

Libro índice de rústica y urbana de Antzuola

Hauetz gain, protokolo gutxi batzuk ere aztertu ditut (denbora arazoa dela eta, ezin izan dut sakonago aztertu; asko geratu da, hortaz, aztertzeke).

P 1/725, 1629

P 1/726, 1551-1559

P 1/738, 1589-1591

P 1/4309, 1639-1668

P 1/4430-4432-4433-4436

P 1/724

Hemen ere bertako langileei eskerrak eman nahi dizkiet, emandako laguntza eta erraztasun guztiengatik.

#### 4.1.3.3. Bergarako Jabetza Erregistroa (erreg.)

Bergarako Jabetza Erregistroan XIX.mendearen erdialdetik aurrerako datuak jaso ditzakegu. Bertan informazioa lortzeko, Mujikak 1989ko bere lanean aipatutako erreferentziak izan ditugu oinarri. Mujikak, hala ere, lekuizena aipatzen zuen soilik, baina erregistroko liburuek lekuen mugei buruzko informazioa ere ematen digute eta kokapenari dagokionez datu interesgarriak jaso ditugu.

Honez, gain, baserri gehienen lurren zerrenda ere jaso dugu, galdeketetarako interesgarriena izan dena.

Erregistroan informazio gehiago ere lor daiteke, baina aipatutako bi artxi-boetan bezala, muga jarri behar izan dugu.

Erreferentziari dagokionez, laburduraren ondoren, lehenik liburu zenbakia, bigarrenaz orrialde zenbakia eta azkenik, "finca" zenbakia ematen dugu. Adibidez: *erreg. 33. 219.191.*

Hemen ere eskerrak bertako langileei.

#### 4.1.3.4. Antzuolako Udal Artxiboa (AUA)

Antzuolako Udal Artxiboa izan da aztertutakoetatik azkena eta hemen ere denbora arazoa dela eta, aukeraketa egin behar izan dugu. Azterketa sakonagoa behar luke. Bertan lor daitekeen informaziorako, agiritegia ondo ezagutzen duen Iñigo Ramirez de Okarizen laguntza izan dugu. Aztertutako artxiboak hiru multzotakoak izan dira: Artxibo historikoa, Artxibo administratiboa eta Udalak hartutako aktak eta erabakiak.

Aزتertutako agirien artean mardulena eta datu eta informazio gehien eman diguna *Compendio de las hojas declaratorias de la Riqueza rústica. Amillaramiento de la Riqueza Rústica* (AUA5), 1945ko "katastroa" hain zuzen ere. Orrialdez orrialde bertako lursailei buruzko datuak ematen ditu.

Hona hemen aztertutako agirien zerrenda:

AUA1	<i>Legajo 102</i>	hainbat data
AUA2	<i>Legajo CLXXVII</i>	1925-1945
AUA3	<i>Legajo CXIII</i>	1855-1904
AUA4	<i>Legajo 96 Subastas de pinares</i>	1922-1953
AUA5	<i>Compendio de las hojas...</i>	1945
AUA6	<i>Contribuciones Urbana, Rústica...</i>	1950/1959
AUA7	<i>Legajo LXIII</i>	1613, 1874-1927
AUA8	<i>Cambio de calles: Ramon Maria Lili...</i>	1939
AUA9	<i>Instalación Churrería Calle de Abajo</i>	1967
AUA10	<i>Cruces del calvario de la Antigua</i>	1969/02/14
AUA11	<i>Derribo de San Bartolome/Facturas...</i>	1978/05/31
AUA12	<i>Viviendas entre Maristas...</i>	1962/08/24
AUA13	<i>15. liburua: Calle General Mola...</i>	1938/9/10 eta 1937/11/18
AUA14	<i>7. liburua: Nuevo Hospital</i>	1877/02/10
AUA15	<i>Nuevas calles</i>	1979/05/28
AUA16	<i>Hainbat gai</i>	1980/4/15 et 1979/11/26
AUA17	<i>16.zk. den H.G.A.ri Ibarrondo</i>	1998/8/9
AUA18	<i>5. HGA n eraikitako etxebizitza</i>	1994/11/15

AUA19	<i>Hainbat gai</i>	1979
AUA20	<i>Udalbatzarraren jakinarazpena</i>	2004/11/5
AUA21	<i>Udalbatzarraren jakinarazpena</i>	2004/4/2
AUA22	<i>Udal Batzarra, 2000</i>	2000/12/14
AUA23	<i>6. HGako kale berriaren izen...</i>	1998/01/20

Eskerrak eman nahi dizkiegu Antzuolako Udaleko langileei bertan lan egiteko emandako erraztasunengatik.

#### 4.2. AHOZKO BILKETA

Idatzizko informazioa izanda, lehen esan bezala, ahozko bilketari ekin genion, baserrietara eta abar bisitak eginez, gehien jakin dezakeen jendearekin hitz eginez. Horretarako aurrezrenda egin genuen eta grabaketak egiteari ekin genion.

Grabagailu digitala erabili dugu, Udalak erositakoa. Lau zintatan lekukoei egindako elkarrizketak daude, pistetan banatuta.

Lekukogaien zerrenda egiteko izandako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiogu Udaleko langilea den Marijose Garitanori. Baserri auzo bakoitzetik hainbat lekuko elkarrizketatu ditugu. Jakinekua da, hemen ere, artxiobotan bezala, zenbat eta lekuko gehiago, orduan eta informazio gehiago, baina denbora muga dela eta, hemen ere aukeratu beharra izan dugu.

Lehenengo harremana, gehienera, bertara joanda egin dugu, lanaren helburua azalduz eta hurrengorako hitzordua lotuz; horrela ezin izan bada, telefonoz egin dugu. Lekukoek ez dute arazorik izan elkarrizketak egiteko, kasuren batean izan ezik. Informazioa emateko eta laguntzeko prest azaldu dira, horrelako lanetarako "beti euren gana" joaten garen arren.

Lekukoek dituzten ezaugarriak orokorrean hauek izan dira: 60 urtetik gorakoak, nekazal mundukoak, bertan jaio eta hazitakoak eta ahoskera garbikoak...

Informazioa jasotzeko galdetegi bat dugu. Lehendabizi elkarrizketatuaren datuak jaso ditugu, fitxa bat betez (izen-abizenak, adina, bertan jaioakoa, bertan bizitakoa, gurasoen eta ezkonkidearen jaiotekua...). Honekin lekukoaren fitxa delakoa bete dugu. Ondoren galdeketa bere inguruaren deskribapena eskatu diegu lehendabizi (baserria, sailak, mendiak, iturriak, errekek...) gero zabalduz joateko (auzoak, baserriak, mendiak, ermitak...).

#### Lekukoak auzoka:

##### UZARRAGA

- Mateo Aranguren, Iruetxeta (Ah. 1)
- Andoni Azkarate, Azkarate (Ah. 18)

##### GALARTZA AUZOA

- Monika Aranguren, Urrutia (Ah. 2)
- Arsenio Irazabalbeitia, Gorrizandia (Ah. 19)

##### LIZARRAGA AUZOA

- Juan Kruz Agirrezabal, Laskuraintxiki (Ah. 3)
- Tomasa Bereziartua, Laskuraintxiki (Ah. 3)
- Genaro Laskurain, Akinibai (Ah. 10)



Kandido Aranguren, Zumaetagañekoa (Ah. 11)  
 Joxe Jauregi, Lamarianogañekoa (Ah. 14)  
 Lorenza Erostege, Udala (Ah. 21)  
 Isidro Zabaleta, Ugartetorre (Ah. 17)  
 Agustin Lete, Laskurainandia (Ah. 25)

## IRIMOEGIGOENA

Eusebio Gabilondo, Ibarra (Ah. 6)  
 Antonio Iturbe, Iralatorre (Ah. 7)  
 Eugenia Txintxurreta, Irimo (Ah. 13)  
 Bentura Igarza, Aitzaga (Ah. 11)  
 Tomas Agirrezabal, Ondamendi (Ah. 16)  
 Juan Francisco Jauregi, Sarasketa (Ah. 15)

## IRIMOEGIBARRENA

Damian Toledo, Iriartegañekoa (Ah. 9)  
 Marikruz Lezeta, Iriartegañekoa (Ah. 9)  
 Sokorro Igarza, Arrandaritorre (Ah. 23)  
 Joakin Igarza, Arrandaritorre (Ah. 23)

## BASALDE

M<sup>a</sup> Rosario Agirre, Amilleta (Ah. 4)  
 Miguel Agirre, Amilleta (Ah. 4)  
 Daniel Iturbe, Iñurriarroazpikoa (Ah. 5)  
 Isabel Jauregi, Iñurriarroazpikoa (Ah. 5)  
 Matilde Ortueta, Egurribai (Ah. 8)  
 Jose Mari Ugalde, Olamendi (Ah. 20)

## KALEA



Piedad Lugarizaristi (Ah. 22)  
 Margarita Iturbe (Ah. 22)  
 Cecilia Kortabarria (Ah. 24)  
 Modesta Azurmendi (Ah. 24)  
 Juana Gabilondo (Ah. 24)  
 Martina Larrañaga (Ah. 24)  
 Angeles Arin (Ah. 24)  
 Kontxita Anduaga (Ah. 24)

Eskerrik asko guztioi!

Ahozkoari dagokionez, ahoskeraren inguruan zera aipatu nahiko genuke: Antzuolan leku bakoitza ahoskatzerakoan lekukoek ematen dioten azentua markatzen saiatu gara. Jakina da euskararen gaineko azentuaren gaia zaila dela zehazten, baina bertoko hizkeraren ezaugarri garrantzitsua denez, ahal izan dugun guztietan markatzen saiatu gara. Ahozko hizkeran ez bada jaso, orduan ez dugu markatu.

Azentuaz gain, ahozkoaren atal hau aprobeztatu nahi genuke, agian herri-tar bat baino gehiago harritu duen kontu bat aipatzeko ete hurrengo atalarekin lotze-ko. Ziurrenik, antzuolar bat baino gehiago harritu egingo da leku-izen baten proposa-menerako *Mañarieta* ikusten duenean, *Máinitta* edo *Manitxa* esaten dugun bitartean. Eta pentsatuko du, zergatik ez *Mainitta* edo *Mainitxa* arautu horrela ezagutu eta ahoskatzen badugu? Adibide hau, hain zuzen ere, izenen itxuraldatzearen adibide gar-

bia dugu, itxuraldatze fonetikoa hain zuzen ere, ekonomiaren mesedetan, jatorrizko forma antzinako iturri idatzietan bakarrik aurki dezakegu. Horrelakoetan uste dugu jatorrizko forma hori berreskuratu behar dugula, baina, oso garrantzitsua dena, eta ahozkoari lotuz, horrek ez du esan nahi esan ere *Mañarieta* esan behar dugula, orain bezala *Máinitta* esango dugu (gazteagoek *Manitxa* esaten dugu, tt bustiduraren ahoskera ere galtzen ari da eta...). *Aretxabaletan* ere *Atxabalta* esaten dute, baina ez dute horrela idazten Aretxabaleta idatzi behar dela garbi dugu. Kasu berbera, ezta?



V  
ARAUTZEA

Sarritan hitz egiten da toponimoen normalizazioaz. Baina normalizazio hori gerta dadin, ezinbestekoa da arautzea. Izan ere, izen bat normaltasunez erabiltzeko, lehendabizi izen hori zein eta nolakoa den jakin beharko dugu. Jakinekua da Antzuolako zenbait leku izendatzeko (baita auzoak ere, *Irimoegi*, *Irimoegibarrena*, *Irimoegigoena*, *Irimoegi goikoa*, *Irimoegi behekoa*, lotuta? h-rekin h-rik gabe?... ) arazoak izan ditugula, irizpide bateraturik ezean. Hau dela eta ezinbestekoa da arautzerako proposamena izatea. Dena den, araututa egoteak ez du esan nahi normalizatuta dagoenik, horretarako, toponimoa araututa egoteaz gain, beste hainbat baldintza bete beharko ditu: ofizialki onartua egotea, herritarrek ere onartua izatea, erabiltzea... Hona hemen honen inguruan "Toponimia arautzeko irizpideak" lanean Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salabarrik diotena:

"Norbaitek galdegin lezake, eta zertarako arautu? Ez al da aski toponimoak dau-den-daudenean bildu eta ematea? Honen erantzuna agerikoa da: zoritxarrez ez da nahikoa, gure toki izenak gero ikusiko ditugun hainbat arrazoiengatik itxuraldatu egin direlako, euskararen arau fonologikoei jarraikiz (bokal arteko -n-ren galera izan daiteke honen lekukorik hoberena) batzuetan, eta arau horiekin zerikusirik ez duten beste zenbait faktorengatik itxuragabetuz besteetan, gure hizkuntza galdu eta toki izenen erabiltzaile diren artzain, igurain, nekazari eta bestek erdara ikasi berriari erabiltzearen poderioz. Gainera, edozein toponimo bilketatan, zeinahi toponimia lanetan, beti aldaera bat hautetsi behar da errealitate bera izendatzen duen aldaera multzoaren izenburutako; hautaketa hau (ia) irizpiderik gabe egin daiteke, lekukorik zaharrena sartuz edo egun bizirik dagoena emanaz, edo tarteko forma bat aukeratuz nahi bada, baina garbi dago beti aldaera nagusi bat bereizi behar dela denen ordezkaritako.

Gure iritzian, gauzak funtsez egitekotan irizpide batzuk izatea beharrezkoa da, aldi bakoitzean nola jokatu behar den jakiteko. Egia da irizpideak ez direla oro-hartzai-leak izaten eta anitzetan aurreikusten ez diren kasu berriak agertzen direla; honek, hala ere, ez du irizpideak ematearen balioa gutxitzen, gure ustean".

Beraz, lan honen helburuetako bat toponimoen finkapena eta normalizaz-  
tzea izan da. Arautzea jatorrizko izena eta gaurkoaren arteko oreka lortzean datza. Hots, izenaren jatorria eta bilakaera ezagututa, toponimoaren forma egokia izan daite-  
keena proposatzen saiatu naiz.

Toponimoen normalizazio linguistikorako oso lagungarri izan da dokumentazio historikoa, forma osoagoak jasotzen baitira. Leku-izen batzuk, denboraren poderioz desitxuratuz joan dira; horrela, gaurko hiztunengana maiz eboluzionatuak iritsi dira, ahozko eta idatzizko erabilera urrunduz, izen berriak agertu eta izen zaharrak ordezkatu egin direlarik.

Honek, zenbait izen arautzeko arazoak ekarri ditu. Askotan, Leku-izen baikoitzaren aldaera baten alde egin behar izan dugu, beste baten kaltetan. Erabaki hauek hartzea ez da erraza izan; idatzizko nahiz ahozko erabilera kontuaz hartzeaz gain, irizpide filologiko, etimologiko, soziolinguistikoak... ere aintzat hartu behar izan ditugu, eta askotan lehenetsuna zeri eman zaila izan da.

Dena den, ez gara hutsetik abiatu eta Antzuolan jasotako 1700 toponimoen normalizazioari ekiterakoan, lehenago esan bezala, Gorrotxategi eta Salaberriren "Toponimia txikia arautzeko irizpideak" lana izan dugu oinarri gisa. Beraz, atal honetan beraiek liburuan azaltzen dutenaren laburpena baino ez dugu egingo, Antzuolako berezitasunak azpimarratuz. Euskaltzaindiaren aldetik, arautze lanetan Iratxe Lasaren ezinbesteko aholkularitza izan dugu.

## SARRERA IRIZPIDEAK

Alde batetik, leku bati izen bat baino gehiago egokituz gero, normalean bat hautatu dugu, eta bestea(k) sinomino moduan agertuko dira. Hautaketa hori egiteko, gaurko erabilera nahiz dokumentazioan zein agertzen den hartu dugu kontuan. Irizpide garrantzitsuen erabilera izan da eta hau ezean dokumentazioan gehien aipatzen dena hautatu dugu, antzinasuna aintzat hartuz. Esaterako, Uzarraga auzoko *Miso* edo *Gabiotza* baserriaren kasuan, ditugun aldaera zaharrenak *Gabiotza* aipatzen dituguten arren, gaur egun eta XIX.mende hasieratik *Miso* eta *Miso* bakarrik da nagusi; gaur egun ere *Miso* izenez bakarrik ezagutzen da. Beraz, *Miso* aukeratu dugu eta *Gabiotza* sinonimoa atalean azalduko dugu. Salbuespen moduan, kaletxeetan gehienetan, bai erabileran bai idatzizkoan bi izen nagusi direnean, eta hautatzea zaila egin zaigun kasuetan, bi izenak azalduko dira sarreran, bat parentesi artean: *Altzarte (Errotabarri)*...

Bestalde, izen berak objektu geografiko edo kokagune desberdinak adieraz ditzake. Honelakoetan sarrera bana eman diogu: hots, *Elgarain* parajea izateaz gain, erreka edota iturria ere bada; beraz, sarrera bana eman diogu. Hala ere, salbuespen moduan herrian toki batean baino gehiagotan agertzen diren espeziifiko-generiko "orokorrak" sarrera bakarrean eman ditugu, nahiz eta herrian leku batean baino gehiagotan (kasu honetan askotan) agertu. Honen adibide garbia baserri guztietan aipatzen diren *Etxeaurrea*, *Etxeazpia*, *Etxeburua*... dira. Bakoitzari ez diogu sarrera bana eman, bakarrean sartu ditugu.

## IDAZKETA

Idazketarako, grafiari dagokionean, Euskaltzaindiak emandako erabakiak errespetatzen saiatu gara.

Arestian aipatu bezala, toponimo gehienak belaunaldi batetik bestera ahoz-ahoz pasa eta gero eta gutxiago erabiltzen diren heinean, jatorrizko formatik urrunduz joan dira; toponimoak ebakeraren deformazio eta sinkopazioaren menpe daude, hizkuntzaren bilakaera normala hori baita. Honelakoetan, toponimoek etimologia erabat

gardena izan baldin badute, errestituzioa egin dugu eta forma osoagoaren alde jo dugu. Honetarako oso lagungarria izan da dokumentazio historikoa, eta zenbat eta zaharragoa izan hobeto, orduan eta forma osoagoak jasotzen baitira.

Aurrera jarraitu baino lehen, toponimoa zer den eta nolakoa den aipatu nahi genuke, arautzerako orduan toponimoaren izaerak berebiziko garrantzia baitu. Horretarako Nerea Mujikak *Toponimia eta kartografia: Oinarrizko eskuliburua* lanean Toponimoa hitzaren definizioa erabiliko dugu “Lekuak edo entitate geografikoak izendatzeko erabili ohi den terminoa. Toponimoa izen propioa da, osagai espezifiko batez eta osagai generiko batez eratuta egon daitekeena”. Adb. Antiguako zubia: Antigua, espezifikoak; zubia, generikoa. Beraz, osagai espezifikoak, toponimoaren izen propioa dela esan daiteke eta osagai generikoak, ordea, entitate geografikoaren izaera, orokorrean, adierazten du.

Orohar, izen generikoak batuaz eman ditugu eta espezifikoetan malguago jokatu dugu, bertako hizkeraren ezaugarriak ahal den heinean errespetatuz.

## TOPONIMOAK LOTURIK EDO BEREIZ

- Tartean deklinabide hondarkirik ez badute toponimoaren osagaiak lotuta idatzi ditugu: *Egurribaisoroa, Korosterratzugaña, Lamarianoburua...* Osagai espezifiko eta generikoa elkartuta agertzen direnean, bai ahokoan bai idatzizkoan ere, gure ustez, bi osagaien arteko lotura berezia edo estuagoa adierazten du; beraz, horrelakoetan espezifikoak eta generikoak ere lotuta eman ditugu: *Misoerreka, Metaliturri...*; izan ere, dokumentazioan lotuta edo marratxoarekin agertzen dira: “termino de *Miso-erreka*”...
  - Espezifikoak deklinabide morfemaren bat daramanean, bereiz eman dugu espezifikoak eta generikoak: Bigarren lekuan doan generikoa “batuaren” grafiaz normalizatzen da: *Altzetako bidea, Antiguako zubia, Larrañagako erreka...* Hala ere, badira ohituraz edo generikoak izendatzen duen errealitate geografikoa ez datorrenean bat lekuarekin, batentzat hartzen edo idazten diren toponimo batzuk: *Altikobidea, Amarrandegikoetxeostea, Ameztikosoroa, Bekobasoa, Egikoaldapa...*
  - Etxe izenei dagokienez, hauen osagaiak batera idatzi ditugu: *Iñurriarroazpikoa, Iralatorre, Iriartegañekoa, Aritzagabasalde...* Salbuespen gisa *Gure txoko* etxe berriagoa.
  - Hagionimiaz aritu aurretik, aldez aurretik hainbat kontzeptu argitzea komeni zaigu. Batetik, ‘adbokazioa’ santu edo Ama Birjinaren deizio baten osagarria dena, eta toponimiarekin zuzeneko lotura ez duena. Jatorriz, santuen irudiak izendatzeko erabilia: *Done Joane Bataiatzailea, Done Bartolome Apostolua...* Bestetik, ‘hagionimoa’ dugu. Santuaren izena dugu berau, gehienetan adbokazioarekin lotuta dagoena eta maiz adbokazioaren beraren era laburtua dena. Hagionimoak tenpluak eta egoitza sakratuak izendatzeko erabiltzen diren izenak ditugu: *San Jose, Santa Ageda...* Santu izenak, hala ere, tenpluak eta bestelako edozein errealitate geografikoetarako ere erabil daiteke, ‘hagiotoponimoak’ dira, beraz.: *San Bartolome kanposantua, San Martzial gaztainadia.*
- Arautzeko, izen edo toponimo gisa hagionimoa aukeratu dugu, adbokazioa oharretan adieraziz.

Hagionimoak, orohar, posposiziorik ez dutenean bereiz idatzi ditugu: *San Martzial, San Jose...* eta toponimian arruntak diren posposizio batez lagunduta daudenean, ostera, loturik idatzi ditugu, *Sanjosepe*, kasu.

## BOKALAK

- Artikuludun eta artikulurik gabeko formen artean, gehien agertzen den bezala arautu dugu, bai historian zehar izandako bilakaera bai egungo ebakera izan dira kontuan.  
Puntu honetan aipatzekoa da herrian artikulugabeak izan diren leku-izenei -a gehitzeko joera: *Irimoixa, Basaldia, Kaminpia, Idalatorrria...*; kasu hauetan, artikulugabeak hobetsi ditugu.
- Artikulua dela eta hitz bukaeran sortzen diren asimilazio eta disimilazio gertakariak ez ditugu onartu eta jatorrizko forma hautatu dugu:  
